

# ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!





**Urretxuko udala**



**ZUMARRAGAKO  
UDALA**

**GABONETAKO XXXI. KRISMA LEHIAKETA  
URRETXU eta ZUMARRAGA - 2019**

Urretxu eta Zumarragan, 2019ko abenduaren 4an, honako epaimahaia elkarturik:

- MARISA MAESTRO (Urretxuko Arte Plastikoetarako Tailerreko kidea)
- LAURA CENDOYA (Zumarragako Arte Ederretako Eskolako irakaslea)
- DORLETA UGARTEBURU (Zumarragako Arte Ederretako Eskolako irakaslea)

eta lehiaketan parte hartu duten 339 lanak ikusi eta aztertu ondoren, sari hauek banatzea erabakitzen du:

**A. Maila (L.H. 1. eta 2. maila)**

**160 Krisma aurkeztuta**

- 1.saria: ANE CALVO URANGA
- 2.saria: ALAIA CALVO ETXANIZ
- 3.saria: ENEKO CALVO QUEVEDO

**B. Maila (L.H. 3. eta 4. maila)**

**95 Krisma aurkeztuta**

1. saria: MAIALEN SEGUROLA PLAZAOLA
2. saria: SARA JAUREGI OLAIZOLA
3. saria: EIDER CALVO QUEVEDO

**D. Maila (L.H. 5. eta 6. maila)**

**84 Krisma aurkeztuta**

- 1.saria: ROBERT BALENCIAGA PEÑA
- 2.saria: LEIRE FERRERO MUÑOZ
- 3.saria: UNAI GOENAGA ETXEBERRIA

Eta horrela jasota gera dadin, akta hau izenpetzen dute:



ARISTAR ORIGINALLAR BUKUR ETIKAN

ARISTAR

ORIGINALLAR

BUKUR

ETIKAN







## GABONETAKO XXXI. IDAZLAN LEHIAKETA

### URRETXU eta ZUMARRAGA 2019

Urretxu eta Zumarragan, 2019ko abenduaren 13an, honako erabakia hartu du Idazlan Lehiaketako epaimahaiak:

#### ERABAKIA:

Saridunen izenak zeintzuk diren esan aurretik epaimahaiak ondokoa adierazi nahi du:

1. Maila batean zein bestean **partaidetza oso zabala** izan da eta lan askoren maila bikaina. Hori dela eta, benetan zaila izan da maila bakoitzeko hiru lan onenak aukeratzea.
2. Lan sarituak aukeratzeko orduan, **aukeraketa bi etapatan** egin da. Lehenengo etapan lan guztiak irakurri dira (219 eta 205); horrela, lan horien guztien artetik, txikien mailan 24 lan aurre-hautatu dira eta handien mailan 33. Segidan, bigarren irakurketa bat egin zaie lan aurre-hautatu horiei eta maila bakoitzean 3 onenak aukeratu dira.
3. Saririk gabe geratu diren **lan asko eta asko maila oso handikoak** izan dira baita ere, baina bigarren irakurketan xehetasunetan jarri da arreta eta horrela hartu da azken erabakia. Edozein kasutan, lan batzuk saritu eta besteak saririk gabe uztea ez da erraza izan.
4. Epaimahaiak bereziki **zoriondu** nahi ditu lehiaketan parte hartu duten haur guztiak, eta baita beraien gurasoak eta eskoletako irakasleak ere, haur horiengan idazteko zaletasuna sustatu eta bultzatzeagatik. Beste behin ere argi geratu da Zumarragan eta Urretxun maila handia dagoela eta hori bereziki poztekoa da, are gehiago lehiaketa honetara aurkeztu diren ipuin guztiak euskaraz idatziak izan direla kontuan hartuz.

#### **A. Taldea (L.H.ko 3. eta 4. mailakoak)**

219 idazlan aurkeztuta

GAIA: "Gabon haietan beste norbaitentzat eskatu nituen opariak."

1. saria: Maren Arregi Alkorta
2. saria: Enara Mitxelena Kerejeta
3. saria: Araitz Martinez Ayerbe

#### **B. Taldea (L.H.ko 5. eta 6. mailakoak)**

205 idazlan aurkeztuta

GAIA: "Urte berrian gauzak aldatzea nahiko nuke"

1. saria: Maialen Arratibel Urkiola
2. saria: Jon Calzada Kerejeta
3. saria: Laia Gomez Gantxegi

Eta horrela jasota gera dadin, akta hau izenpetzen dute.



## GABON HAIETAN BESTE NORBAITENTZAT

### ESKATU NITUEN OPARIAK

A. tablea  
1. Sarra

2017-ko abenduaren 14ean familia guztia etxean zegoen, gabonetako zuhaitza ipintzen ari ginen. Beno agian denok ez. Nire lehengusuak mugikorrarekin zebiltzan denbora guztian. Nire amona etxea kux-kuxeatzen ari zen, nire aitona komunean zegoen hiru segundutik behin eta nire izeba baltzoiean zegoen, elurra nola egiten zuen ikusten. Ezin zen familia guztia batera egon. Nola egin familia guztia batera egoteko? Ni opariak eskatzen ari nintzen eta zera pentsatu nuen: "Eta familia guztia batera egoteko opari bat eskatzen badut?" Abenduaren 24a zen. Gabongaua! Opari ugari eskatu nituen gabon haietan, irrikitan nengoen. Zein opari ekarriko ote zidan olentzerok. Opariak iteki behar ditut! Esan nuen, Dena niretzat zen, ez zegoen eskatu nuen opari berezi hura. Baina eskerrak amonaren etxera gindoazela opari gehiago itekitzera. Eskerrak, oparia han zegoela bestela... Nire gurasoak ez zeñiten zertarako zen opari berezi hura. Famili guztiarekin afari berezi bat egitea pentsatu nuen. Aukera paregabea zen nire oparia familiara erakusteko. Abenduaren 26a zen, afariaren ordua zen. Plater bakoitzean gutuntxo bat zegoen eta hau jartzen zuen:

"Familia maitea azkenaldi honetan ez gara asko elkarrekin egoten, bakoiko nuke afari honetan pentratzea zer ondo pasatzen dugun denok batera. Eta apurtxo bat denok batera egoteko saiatu eta egitea." Maren

Familia guztiaK gutuna itaKurri eta irribarre bat  
egin zuen. OrdutiK aurrera asteburuto elKarreKin egoten  
gara familia guztia.

IZEN- ABIZENAK: MAREN ARREGI ALKORTA



Ataldea  
2.3.a

Itzazako arrainak hiltzen ari dira,  
memdi eta leasatan zehar gutxiago daude,  
zerua kutxatuta dago, ... Luzea, gure planeta,  
gaurerik dago.

Bizitzeko beste planeta bat behar da gurea  
pentzatu nuen eta lelatzeanekin miren.

Mekinon leuzak ikeritzen hasi nintzen eta  
leuzak oso ezker ematen dituzten  
zorabiatuta nintzen pentzatu nuen. Artizari  
rekin jarraitu nuen. Baina sumendiak diteta  
dago. Ondoren Marte leuzatu zitzaizkion  
leina bere egia da. Jupiter ere ez zen egoki  
hazte egia delako. Orduan Saturno gogoa  
izan nuen leina hotza eta hazte egia da eta  
Urano pareko. Azalirik, Neptuno eta Pluton,  
eguztiak oso urrun daude, hotze egia izango  
zirela andoriatatu nuen. Hura zen leuzatuta, hura  
Ozono gaurerik gertatzen ari zirenari leuzak, hura  
gogoa egiten ari nintzen, leuzesten gertuen  
trapela delatzen, gizon trapeldun espeluzen orait  
nintzen. Hura zen, hain zuzen, Olentzero. Arzi eta gar  
izan nuen Gabrielen eskatu beharrela. Luza  
planetaren zuintzeak gogoa hedapenas izan ere  
bere egonak gutxi eragiten ditu.

Izen-abizenak: Enara Mitxelena Korojeto



## GABON HIAIETAN BESTE NORBAITENTZAT AESKATUTENITUEN LOPARIAK

Neguko ostiral arratsalde batean, ikastolatik ateratakoan, nire etxera joan nintzen matxila uztera. Ondoren korrikam nire amona eta aitarenen etxera joan nintzen baina iritsitakoan ikusi nuen nire amona baharrik zegoela eta galdetu nion:

-Non dago aitona!?

-Ospitalera dago. -Erantzun zidan eta hitz egiten jarraitu zuen.

-Gaua gaitzean ere gaitze zegoen bihotzetik eta ospitalera eramam dugun. Hori jakin nuenean triste jarri nintzen eta ospitalera joan nahi nuen aitona ikustera. Nire ama iritri zenean gurtia kentatu nion eta ospitalera eramam ninduen. Aitonaekin ordu erdi, hitz egin ondoren nire etxera joan nintzen.

Etxean aitonaarentzat murrizki bat egiten hasi nintzen eta ondoren afaldu eta ahera joan nintzen. Hurrengo egunean paz-pazik nengoan gauran olentzerara zetoarelake. Gosal-tzerara joan nintzen eta ondoren olentzerarentzake karta idazten hasi nintzen. Aitonaarentzake bihotz berri bat erkatu nuen. Eguna ere luzea egin zitzaidan baina aritenean gaua iritri zen. Afaldu eta ahera joan nintzen.

Hurrengo egunean ospita hartu eta ospitalera joan nintzen.

Nire aitona la zegoen eta medikuek bihotz berria jarri zia-ten. Errotu zenean karta bat zegoela ikusi zuen eta irakurri egin zuen. <sup>4</sup>Kaixoa aitona, orain badakit hobe zaudela. Olentzerari bihotz berri bat erkatu diat eta la zaudela medikuek bihotz berria jarri diute. <sup>5</sup>Aitona ospitaletik jeiti zuten eta korrikam

erkatu nuen. Eguna ere luzea egin zitzaidan baina aritenean gaua iritri zen. Afaldu eta ahera joan nintzen.

Hurrengo egunean ospita hartu eta ospitalera joan nintzen.

Nire aitona la zegoen eta medikuek bihotz berria jarri zia-ten. Errotu zenean karta bat zegoela ikusi zuen eta irakurri egin zuen. <sup>4</sup>Kaixoa aitona, orain badakit hobe zaudela. Olentzerari bihotz berri bat erkatu diat eta la zaudela medikuek bihotz berria jarri diute. <sup>5</sup>Aitona ospitaletik jeiti zuten eta korrikam

erkatu nuen. Eguna ere luzea egin zitzaidan baina aritenean gaua iritri zen. Afaldu eta ahera joan nintzen.



jaan mintzen bereganara. Hartik aurrera pazik baino hobeto  
leizi izan ginen.

IZEN- ABIZENAK: Araitx Martinez Ayerbe

URRETXU ZUMARRA

## URTE BERRIAN GAUZAK ALDATZEA NAHIKO NUKE

B. Beldia  
A. Soria

Abenduko gau beltzetan, otsoen uluek maindire bat bezala mendiak estaltzen dituzten gau horietan, isiltasuna basoen jabe bihurtzen da.

Baina hura ez zen gau horietakoa. Galtzagorrien pauso hotsek bete zuten isiltasuna. Urtero bezala, Euskal Herriko ume guztien eskutitzak jasotzera zihoazen mendian behera.

Lehenengo postontzira iristean, eskua sartu eta ikaragarritzko ezustea hartu zuten: ez zegoen eskutitzik. Orduan bigarren postontzira joan ziren. Hutsik. Eta hirugarrenera. Hutsik. Laugarrenera...HUTSIK!

Dardarka, ezer ulertu ezinik, bata besteari begira zeudela, itzal baten arrastoa ikusi zuten kale ertzean eta haren atzetik abiatu ziren korrika.

-Praka gorriak ditu....-esan zuen galtzagorri batek.

-Eta bizar zuria...-jarraitu zuen beste batek arnasestuka.

-Eta...eta...eta...zaku erraldoi bat bizkarrean...

-Papa Noel da!!!! Olentzerori ez zaio bat ere gustatuko!!!!-oihu egin zuten denek batera.

Galtzagorriek ez zekiten Olentzerori nola kontatu gertatutakoa, batzuk hitzik gabe gelditu ziren, besteak korrika hasi ziren noraezean eta beste bat ardoa edan eta edan hasi zen.

Olentzeroren etxera sartu baina lehen zozketa egin zuten berria nork eman erabakitzeko. Erdi mozkorri tokatu zitzaion:

-Poootooloo baaaaateeeek eeskutiiitzaaaak laaapuurtuuuu diiiiizkiiiizuuuu!!!!!!!

-Barkatu. Zer esan duzu lagun?- Olentzerok.

-Euskal Herriko haur guztiek Papa Noeli idatzi dizkiote eskutitzak, inork ez dizu eskutitzik idatzi – esan zion Galtzagorri nagusienak.

-Ez da txantxa potolo bat izango ezta!?!?!?- galdetu zuen nahastuta.



-Egia da!- denek batera.

Tristura eta amorrak kolore ilunez margotu zuten Olentzeroren aurpegia eta bakardadearen itzalak bete zizkion barrenak. Bai. Bakarrik sentitzen zen, umeek gizon bizartzuri arrotz harengatik trukatu zutelako.

"Zer egingo dut orain?" Galdetzen zion bere buruari eta zalapartaka zituen ideia guztien erdian, batek indarra hartu zuen. "Euskal Herriko haur guztiei eskutitz bana idatziko diet".

Bere gelan sartu, pàpera eta arkatza hartu eta orri zuria hizkiz betetzen hasi zen:

*Haur maitea:*

*Bakardadearen putzuan murgilduta idazten dizkizut hitz hauek, aurtegoan, ez bait·dit Euskal Herriko ume bakar batek ere eskutiz idatzi, baina jakin ezazu, umeak beti izango zaretela nere altxorrik preziatuena.*

*Ez inoiz ahaztu EUSKALDUNA zarela eta euskal kulturak nortasuna ematen dizula. Ez galdu zure nortasuna, telebistan edo iragarkietan ikusten duzunari kasu eginez.*

*Zure arbasoek bihotzean erein dizuten hazia elikatzea da garrantzitsuena.*

*Zure magiarik gabe, nik mundu honetan lekurik ez dudalako...besarkada handi bat,*

*Olentzero*

Abenduaren 24 gauean, milaka eskutitz zakuan zituela jeitsi zen menditik Olentzero. Guztiak banatu ostean, berriro ere mendian gora abiatu zen, urte berrian gauzak aldatuko ziren itxaropenak begietan diz-diz egiten zion bitartean...

*Maialen Arratibel Urkiola*



# EUSKARA

Beldu  
J. Jorja

## Abenduak 24

Nire izena Juan Manuel da eta 83 urte ditut. Ipuin honekin kontatu nahi dizuet zer gertatu zen 1944. urteko Gabonetan, nik orduan 8 urte nituen. Nire ametsa txikitan euskaraz hitz egitea zen eta nik hori nola edo hala nahi nuen aldatzea. Zergatik ezin genuen guk nahi genuen hizkuntzan hitz egin? Garai haietan ez zen etortzen ez Olentzero eta ez Mari Domingi eta ez genituen mugikorrak, kanikekin jolasten genuen. Diru asko ere ez genuen eta herriko neska-mutil guztiak abestera ateratzen ginen etxez-etxe ea diru pixka bat lortzen genuen. Bueno harira, orain Gabon haietan gertatu zena kontatuko dizuet:

Orduan ezin zen Euskaraz hitz egin Francoren garaia zelako, nik ez nekien Euskaraz hitz egiten garai hartan. Zuek gazteak izanik agian ez dakizue zein den Franco, Franco antzinako Españaiko militar eta diktadorea izan zen. Neska-mutil guztiak pozez zorutzen zeuden eskolan oporrak eman zizkietelako. Ni, zazpi anai-arrebetatik bostgarrena nintzen eta eskolatik ateratakoan bakoitza bere lagunekin jolastera joan zen, ni Andres-ekin joan nintzen parkera jolastera. Parkera iritsi ginenean Andresek galdetu zidan:

- *¿A qué jugamos?*
- *¿Qué tal a las canicas? ¿Y si nos ponemos en ese banco?- erantzun nion.*
- *Vale...*

Orduan kaniketara hasi ginen jolasten. Ni irabazten hasi nintzen, hiru kanika lortu nituen baina azkenean berak bere hiru kanikak berreskuratu zituen. Ondoren berak esan zidan:

- *Ha empezado a anochecer y mi madre me ha dicho que cuando empiece a anochecer que vaya a casa.*
- *Pues entonces, Feliz Navidad- esan nion.*

Etxerako bidean aitarengan pentsatzen egon nintzen, duela hilabete bat etxetik joan zen gerrara eta ez genekien ezer beretaz. Etxera iristerakoan nire anai zaharrenak, Jose Antoniok, esan zidan:

- *Vienes tarde, solo queda una cucharadita de arroz.*

Orduan ikusi nituen nire anai-arreba guztiak afaltzen eta nire ama niri arroz pixka bat gehiago prestatzen. Ondoren eseri eta amak arroz platera mahai gainean jarri zidan. Afaldu ondoren anai-arrebak, ama eta ni bizilagunen etxera joan ginen gauero bezala. Beraiek egunkaria jasotzen zuten bakarrak ziren. Egunkariak gerrari buruzko atal bat zekarren eta familia guztiak nahi genuen jakin ea aitaren berri zegoen. Ondoren Jose Antoniok esan zuen:

- *No creo que se haya terminado esta guerra.*

Eta ondoren nire arreba Lourdesek esan zuen:

- *El que ha empezado la guerra ha sido Franco, y el que la va acabar ganando también.*

Bizilagunen etxera gerturatu ginen, tinbrea jo genuen eta atea ireki ziguten. Maria Jose deitzen zen bizilaguna eta hark esan zigun:

- *Hoy no he recibido el periódico.*

Eta gero nik esan nuen:

- *Qué raro... Cuando iba a la escuela he visto a un abuelo con el periódico.*
- *Seguro que se les ha olvidado entregar en esta casa- esan zuen Jose Antoniok.*

Mari Joseri gabon esan genion eta etxera bueltatu ginen. Ohean nengoela ezin izan nuen lorik egin egunkariaren kontuarekin.

## Abenduak 25

Esnatu eta pentsatu nuen bizilagunen etxean sartzea eta begiratzea ea egunkaria zuten edo ez, beraietaz susmatzen nuen. Gosaldu nuen eta amari esan nion Andresek in joango nintzela jolastera. Jantzi eta bizilagunen etxera joan nintzen, banekien Maria Jose lanera joan zela eta haren senarra gerrara joan zen aitarekin. Atzeko leihoa irekita zegoen eta jauzi handi batekin barrura sartu nintzen. Toki guztietan begiratu nuen eta azkenean armairu bat ireki nuen eta han aurkitu nuen egunkaria. Orriak pasatu nituen eta gerrako atalera iritsi nintzen, begiratzen hasi nintzen eta hildakoen zatira iritsi nintzenean ikusi nuen aitaren argazki bat zegoen. Aita hil egin zen !!! Ezin nuen sinistu. Etxera joan nintzen korrika batean eta amari kontatu nion dena. Amak ez zidan sinistu eta nik baietz esan nion. Azkenean amak zigortuta



logelara bidali zidan txorakeriak esateagatik.

Abenduak 29

Jaiki nintzen eta konturatu nintzen 9 urte nituela jada nire urtebetetze eguna zen!!! Garai hartan urtebetetzeak egun normal bat bezala ospatzen ziren, ez opariak, ez festa... Orduan egun normal bat bezala izan zen.

Abenduak 31

Jaiki eta egongelan liburu batzuk zeudela ikusi nuen eta gerturatu egin nintzen. Liburuak euskaraz idatzita zeudela konturatu nintzen!!! Korrika eta saltoka hasi nintzen eta etxeko denak esnatu nituen. Denak esna geundenean amak esan zigun Olentzero izeneko izaki mitologiko batek ekarri zituela liburuak. Orain Olentzero abenduaren 25ean etortzen da, baina urte hartan abenduaren 31an etorri zen. Eguna hura hobereana izan zen, euskaraz ikasten hasteko aukera nuen. Eguna bukatu zenean zertxobait ikasita nuen, hain pozik nengoen liburuekin eta guzti egin nuela lo.

Urtarrilak 1

Etxeko azkena esnatu nintzen eta atzokoa baino sorpresa handiagoa hartu nuen, egongelan bera zegoen... AITA!!!! Korrika batean berari besarkatzera joan nintzen eta esan nion:

- Ez al zeunden gerran???
- Bukatu da eta irabazi egin dugu. Noiz ikasi duzu Euskaraz???
- Atzo, baina ez dakit *Mucho*.

Ondoren anai-arreba guztiak gosaltzera joan ziren eta ni, aita eta ama egongelan geratu ginen. Orduan galdetu nion:

- Baina zu ez zeunden hilda?
- Begira, nik gerratik atera nahi nuen nola edo hala eta ihes egin nuen -esan zuen aitak- Hiru egun egon nintzen kalean lo egiten eta zuengan pentsatzen. Hirugarren gauean zutaz asko gogoratu nintzen eta burura etorri zitzaidan zure ametsa, Euskaraz hitz egitea zuk hori nola edo hala aldatu nahi zenuen eta pentsatu nuen urte berrirako zure omenez aldaketa bat egitea. Ikastetxe bateko planoak hasi nintzen eraikitzen, ikastetxe horretan matematika, natur-zientziak... dena Euskaraz!!!
- Eta ikastetxe hori noiz sortuko da!!!???
- Hurrengo urtean. Eta hau dena zuri urte berrirako aldaketa handi bat oparitzeko.
- Eskerrik asko aita!

1945 urtea

1945. urtean hasi nintzen Ikastolan eta poliki poliki beste herri batzuetan hasi ziren eraikitzen.

2019 urtea

Hau izan da gabon haietan gertatu zena, historiako gabon zoriontsuenak izan ziren niretzat, eta oso aldaketa nabarmena gertatu zen urte batetik bestera.

Gaur egun, niri pena asko ematen dit, borrokatu behar izan genuen Euskara, Euskal Herria eta Euskaldunak aurrera ateratzeko eta orain heldu eta gazte askok Gazteleeraz hitz egiten dute. Baina gogoratu:

HIZKUNTZA BAT... EZ DA GALTZEN  
EZ DAKITENEK IKASTEN EZ DUTELAKO,  
DAKITENEK HITZ EGITEN EZ DUTELAKO BAIZIK.

Jon Calzada Kerejeta

## “Urte berrian gauzak aldatzea nahiko nuke”

~~Bakides~~  
3.5.19

Kaixo! Ni June naiz, Urretxuarra eta 10 urte egin berri ditut. Urte berrian, nire buruari zer aldatuko nukeen galdetzen diodanean hainbat ideia etortzen zaizkit burura. Baina guztietatik aukeratuko nukeen desira honako hau da: Urretxu kutsadura eta hondakinik gabeko herri garbi batean bilakatzea. Oso triste jartzen naiz kalera irten eta lurrian zaborra ikusten dudako bakoitzean.

Helburu hau lortzeko denok jarri beharko dugu gure aldetik, batzuetan taldean lan eginez eta beste batzuetan gure ohiturak aldatuz.

Zergatik ez ikastolara kotxez joan ordez bizikletan edo patinetean joango bagina? Era horretara, kotxeek botatzen dituzten keak murriztuko genituzke eta horrela arnasten dugun airea askoz ere gabiagoagoa izango litzateke.








Edota gaur egun hain ohikoa den plastikoaren erabileraren gutxitzea. Hori lortzeko zenbait proposamen datozkit burura: Telazko poltsak erabili, plastikozkoen ordez eta herriko iturrietatik ura edan plastikozko botilak erosi beharrean.

Zer esanik ez dago txakur kaken inguruan zenbait neurri hartu beharko liratekeela. Askok lagunduko luke leku gehiagotan txakur kaken zabor ontziak jarriko balira. Txakurren jabeek, poltsak ekarri behar ez ditzaten, kakak botatzeko ontzien alboan poltsak eskuragarri edukitzea ere egokia izan daiteke.

Nire aldetik, zenbait ohitura aldatzeko prest nago: Hortzak garbitzen ditudanean iturriko ura itxita mantentzea, zaborra ondo ondo banatzea, gelatik irteten naizenean argia itzaltzea, urteko ibaiaren garbiketan parte hartzea.....eta nola ez, saiatuko naiz nire ingurukoei ere beraien ohiturak aldatzen laguntzen.



Hau da hau datorren urterako daukagun erronka polita!!!!



Al dia Gomet Golutrespi